

>>> KRONIKA

ARETTERA EGUN PASA



>>> GOIZ-GOIZETIK ETXETIK KANPO



5:45

Lo aurpegiarekin Niessengo autobus geltokitik atera ginen Aretteruntz, bidean bakoitzak nahi zuena egiten zuen; musika entzun, lo egin, serie/film bat ikusi...

8:30

Begiak irekiz joan ahala, eguzkia ere ikusten hasi ginen, laku baten ondotik pasatzen ari ginela ikusi genuen egunsentia eta denoi asko gustatu zitzaigun hori ikustea. Nola ez, argazki asko egin genituen une hartan.



IRITSIERA <<<

9:30

Eskiatzeko gogoekin iritsi ginen, baina oraindik itxaron egin behar izan genuen. Lehenik, arropa egokia jarri behar genuen, ondoren, taldeetan banatu gure eski mailaren arabera. Hori eginik, petoa, kaskoa eta eskiak jarri eta oraingoan bai, elurretara joan ginen.



>>> GOIZA

10:00

Hasiera batean denek ez genekienez eskiatzen, "BABY" pistan erakutsi ziguten batzuei bazkal ordurarte, besteak bitartean, telesilaz beste pistetara igo eta eskiatzen jaisten ziren, nola ez monitorei esker ere gehiago ikasi genuen. Hitz gutxiagotan esanda, bazkal ordurarte monitoreekin aritu ginen bakoitzari egokitzen zitzaion pistan.



>>> EGUERDIA

13:00

13:00ak aldera, gose ikaragarria genuenez, bazkaltzera joan ginen gelatxo batera, handik ere elurra ikusten genuen, baina noski momentu horietan nor egongo zen horretan pentsatzen goizeko 5:00etatik jan gabe baldin bageunden?

Nahiz eta denbora askorik ez eduki bazkaltzeko, han jarri ginen gure bokata edo tupperretatik janaria janez. Han ginela, beste taldeetan genituen lagunekin hitz egiteko aukera eduki genuen eta goiza komentatzen pasa genituen minutuak.



>>> ARRATSALDEA

13:30

Bazkalostean, eskiak jantzi genituen berriro eta hantxe joan ginen berriro elurretara, oraingoan bai, monitore gabe lagun artean. "BABY" pista utzi genuen eta telesilaz pista urdin eta gorrietara joan ginen.

Jaitsierak bukatutakoan, berriro igotzen ginen, ondoren berriro jaisteko, eta horrela behin eta berriz. Baina, lagunekin ikaragarri ongi pasa genuen.

ITZULERA <<<

17:00

Irakasleekin geratutako orduan materiala uztera joan ginen, momentu horretan bai denbora asko behar izan genuela eta nahiko aspergarria izan zela, baina egun osoko nekealdia genuela ere egia da. Behin dena bere tokian utzi genuenean, poliki-poliki autobusera itzultzen joan ginen.

Igotzen joan ahala, arropa aldatu genuen eta aukietan nekaturik erori ginen.



>>> 14 ORDU BERANDUAGO

20:30

Azkenean iritsi ginen Errenteriarra. Itzultzeko bidaiari zehar ere iluntzea ikusi genuen, luzeak egin zitzaizkigun azken ordu horiek, baina hasieran bezala, musika, pelikulak... erabili genituen entretenitzeko.

Autobusetik jaisterakoan, denok etxera joan ginen leher eginda. Egund luze, polit eta ahaztezin bat izan zela ziur gaude gu.